



Aitzol, Asier eta Eneko

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Balorezko proposamena.....	3
3. Merkatuaren segmentazioa.....	4
4. Funtsezko elkarteak.....	5
5. Irabazi iturriak.....	6
6. Kanalak.....	7
7. Bezeroekiko harremanak.....	9
8. Funtsezko baliabideak.....	10
9. Funtsezko jarduerak.....	11-12
10. Kostuen egitura.....	13-14

SARRERA

Gure negozio ideia Asierreri burutu zitzaien “Automozio Go Mailako” ikasketak burutu eta gero. Automozio esparruan “**ibilgailuen moldaketak**” dibertsitate funtzionala duten pertsonen beraien beharrezko konkretuei egokitu eta egitea pentsatu genuen. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen beraien bizitza kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Negozioa **kooperatiba** txiki bat izango da, eta hiru bazkide izango gara; Eneko, Aitzol eta Asier. Hiru bazkideok erabakitzen dugu enpresaren nondik norakoak, bakoitzak bere ikasketak eta lan esperientzia ezarriz.

Gure enpresa “**agenda 2030**”ean zehaztuta dauden helburuekin konprometitu behar dela argi daukagu, garapen jasangarri bat bultzatuz. Bertan aipatzen diren 17 helburuetatik gure negozio ideia ondorengoekin bat dator:

- **Energia jasangarria** erabiltzea; kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak sustatuz.
- **Hazkunde ekonomiko iraunkorra**, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa, eta guztientzako lan duina sustatzea.
- **Generoen arteko berdintasuna** lortzea.
- **Bizitza osasuntsua** bermatzea eta guztientzako ongizatea sustatzea adin guztietan.

Hemen adierazten ditugu gure enpresaren misioa eta ikusmira.

- **Misioa:** Moldauto Espainia mailan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat erreferente bihurtu nahi da; **edozein motatako ibilgailuetan** beraien mugikortasun-beharrei egokitutako kotxe, karabana, taxi, furgoneta, autobusei... moldaketak sortuz, beraien eguneroko bizitza errazteko eta hobetzeko helburuarekin, ekoizpen prozesu jasangarrietan oinarrituz.

- **Ikusmira:** Espainian **erreferentziazko enpresa** izatea eta gure merkatua nazioarteko beste herrialde batzuetara zabaltzea, irisgarritasun unibertsalean, gidaritzan eta garraioan bere autoa modu seguru eta erosoan gidatu nahi duten guztiei lagunduz ibilgailu mota guztietan egingo ditugun moldaketekin, gizartean pertsona guztien inklusioa bultzatuz eta bezero bakoitzari irtenbide guztiz pertsonalizatua eskainiz prozesu jasangarrien bidez.